

ENPRESAK ETA UDALAK (Hernanin 2009-03-09 / 12:30ean)
SINATZE-EKITALDIA.

Buruntzaldeko hiru enpresa berrik ekin diote beren enpresetan euskara planak martxan jartzeari, eta lan horretan laguntzeko Buruntzaldeko udalek dituzten baliabideak beren eskura jartzeko hitzarmena sinatu zuten Hernaniko udalean 2009ko martxoaren 9an.

Mahaian egon zirenak:

Urnietako Deman enpresaren ordezkaria (Xabier Elizegi)
Lasarte-Oriako TSST enpresaren ordezkaria (Santiago Sarasola)
Hernaniko AMR Refractarios enpresaren ordezkaria (Mikel Ruiz)
Urnietako alkate: Mikel Izagirre
Lasarte-Oriako alkateordea: Iñaki Múgica
Hernaniko alkate: Marian Beitialarrangoitia

Sarrera. Lan munduan euskara normalizatzeak duen garrantzia

Marian Beitialarrangoitia

Lan mundua euskararen normalizaziorako garrantzitsua da eta Udala euskara normalizatzeko egiten ari den ahaleginaren baitan kokatzen da lan munduan ere euskararen normalizazioaren aldeko pausoak ematea. Neurri batean, euskararen normalizaziorako klabeetako bat da lan mundua euskalduntzearena. Arrazoi desberdinak:

a. Gure eskualdeko belaunaldi gazteek beren ikasketak euskaraz egiteko aukera izan dute, hasi Haur Hezkuntzatik eta Unibertsitatean, eta horiek lan mundurako jauzia egiten dutenean inportantea izango da lana euskaraz egiteko aukera izan dezaten. Horretarako, urrats batzuk emanak behar ditu enpresa edo lantegi horrek, lurra, terrenoa, goidatuta, prestatuta, aurkitu dezan langile gazteak eta lur hori lantzen segi dezan berak, gazteak, alegia.

b. Euskaraz lana ere egin daitekeela aski frogatua dugu dagoeneko, hau da, euskara ez dela soilik lagunartean eta etxean erabiltzeko hizkuntza bat. Euskarak badu aski baliabide bai eskulana egiten duen tailer batean eta bai teknologia aurreratuenarekin lan egiten duen enpresa batean ere modu normalizatu batean erabiltzeko. Ditugun baliabide eta aukerak praktikan jartzea, beraz, garrantzitsua da. Noski, era progresiboan, planifikatuta eta bakoitzak dituen ezaugarrietara egokituta.

c. Gaur egungo gizartean gero eta beharrezkoagoa da eta izango da hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea enpresan eta horiek denak kudeatzeko moduak eta irizpideak ezarri eta adostea. Zer egingo da gaztelaniaz, zer ingelesez, zer frantsesez, zer...eta zer euskaraz. Hizkuntzen kudeaketa egokia egitea enpresaren jarduna kalitatezkoa den ala ez neurtzeko beste parametro bat da. Euskara plana eta kalitate plana eskutik helduta doaz.

d. Udaletik ari naizenez, eta Udala bera enpresatzat hartu dezakegun neurrian, Udal barnean ere euskaraz lan egiteko neurriak hartzea oso garrantzitsua dela uste dut eta bide horretan urrats sendoak egiteko ardura handia dugula Udalok. Gure lana eta zerbitzua kalitatezkoak izango dira hizkuntza irizpide egokiak hartu eta betetzen ditugun neurrian.

Horregatik guztiagatik, Buruntzaldeko Udalok asmo sendoa dugu eskualdeko enpresetan euskara plana abian jar daitezen laguntza emateko, bai sustapen lana bultzatuz eta bai dirulaguntzen lerroari eutsiz.

Buruntzaldeko sustapen lanen historia laburra: Mikel Izagirre (Urnietako Udaleko alkatea)

Buruntzaldeko udalak 2005ean hasi ginen enpresetan euskara planak sustatzen. Terreno landu gabea zen hura, eskualdean ez zegoen apenas enpresarik euskara modu planifikatuan lantzen ari zenik. Ez dut esango inork ezer egina ez zuenik, ez da-eta horrela. Enpresa batean baino gehiagotan bazegoen euskararen aldeko sentsibilitaterik eta saiakera batzuk, handiagoak edo txikiagoak, eginak zituzten hainbat tokitan. Eta saiakera horiek ekarri dute, ziurrenik, ondoren beste indar eta sendotasun batekin heltzea gai honi udalotatik ere. Aitzindariak edo pioneroak izan ziren haien lana eskertuta eta aitortuta, beraz, bai azpimarratu nahi dut Udalon sustapen lanak tarteko, 13 plan ditugula orain Buruntzaldean.

Era askotako enpresak ditugu 13 horien artean: produkzio-enpresak, zerbitzuzkoak, tamaina oso ezberdinekoak (badira 10 langilekoak eta badira 100 langilekoak ere), langile euskaldun gehiago edo gutxiago dituztenak...eta neurri horretan, oso behar eta egoera ezberdinekoak hizkuntza aldetik ere.

Herrika hartuta, baditugu 3 Usurbilen, 4 Hernanin, 2 Andoainen, 2 Lasarte-Orian, 1 Astigarragan eta 1 Urnietan.¹

Gaur gurekin mahaian ditugunak 13 horietako 3 dira, oraintxe abiatzen ari direnak. Beraiei nire eskerrik beroena.

Hitzarmenaren helburua: Enpresari laguntzea euskara plana egiten abiatzeko **Iñaki Múgica (Lasarte-Oriako Udaleko alkateordea)**

Udalok enpresei laguntzeko erabakia hartu genuenean, hemen esan duten bezala 2005 urtean, ez genuen zalantzarik izan. Eskualdeko enpresak ahalik eta kalitate eta konpetibitate edo lehiakortasun handienekoak izatea da Udalak nahi duguna.

Horregatik, alde batetik sustapen lana egitea erabaki genuen, hau da, enpresa batzuk aukeratu eta bisitatzea, euskara plana zer den azaltzeko eta euskara plana egitera animatzeko.

Beste alde batetik, dirulaguntza lerro bat ireki genuen, euskara planak enpresari ekar diezaiokeen gastuari aurre egiten laguntzeko. Dirulaguntza hori bideratzeko hitzarmena sinatzen dugu Udalaren eta enpresaren artean. Eta horixe da minutu batzuk barru mahai honetan egingo duguna.

Udalaren dirulaguntza (3.500 euro) plana abian jartzeko ematen da, hau da, diseinua egiteko eta lehen urteko inplementazioa finantzatzeko. Dirulaguntza hau Eusko Jaurlaritzak duen dirulaguntzaren osagarri gisa ematen da. Eusko Jaurlaritzak LanHitz programaren bidez ematen dituen dirulaguntzen osagarria da Udalona, elkarrekin eta modu koordinatuan ari baikara lanean enpresetan euskara normalizatzeko.

Helburua hauxe da: Lehen urtean enpresak izan dezakeen gastuaren 2/3 erakunde publikoon dirulaguntzekin finantzatzea. Enpresak kostuaren 1/3 hartzea bere gain. Bigarren urtetik aurrera LanHitz programaren bidez finantzatzen da euskara plana.

Bukatzeko, mahaian ditudan enpresa-ordezkariei eskerrak eman nahi dizkiet udaletako ordezkariaren izenean, eta aurrera egiteko ilusioa eta gogoia helarazi.

Santiago Sarasola (TSST-ko ordezkaria)

- Gu, zerbitzuzko enpresa izanik, oso hurbiletik egiten dugu lan gure eguneroko bezeroak diren herritarrekin. Eta, jakin badakigu, horien arteko euskaldunen kopurua kontuan hartzekoa dela, eta nabarmen handitu dela, gainera, azken urteotan.
- Gure zerbitzuaren kalitatea hobetzen zentratzen gara hein handi batean, eta horretarako egokiak diren neurriak hartzen ditugu.

¹ Usurbil (Berriola, Luzuriaga eta Izagirre), Hernani (Orona, Selak, Hator,AMR), Lasarte-Oria (Aduriz eta T.S.S.T.), Andoain (Latz eta Mondragón Sistemas de Información), Astigarraga (Tximela), Urnieta (Deman)

- Gure bezeroei zerbitzurik hoberena eskaintzea da gure helburu nagusienetako bat, eta horretan, lehen esan dudan bezala, euskararen ezagutzak gora egin duela eta, ezinbestekotzat jo dugu aldagai hori ere kontuan izatea hemendik aurrera, eta modu planifikatu batean, gainera, gaur sinatuko den hitzarmenak arautzen duen plan integrala abian jarritz.
- Bukatzeko, aipatu behar dut ere, kontsumitzailearen eta erabiltzailearen legearen garapenari esker, egin behar denari buruzko gero eta pista gehiago daukagula. Orain arte nahiko difuminatuta, orokortasunetan gelditzen zen legea, forma zehatza hartzen hasi da.